

# PRODISCAT

DISLEXIA DETEKTATZEKO  
ETA JARDUTEKO  
PROTOKOLOA.  
HEZKUNTZA-ESPARRUA.

Argitaratzailea:

Departament d'Ensenyament de  
la Generalitat de Catalunya.

Egilea:

Col·legi de Logopedes de Catalunya – CLC

HAUR-HEZKUNTZA  
(5 URTE AMAIERA)

# Haur-hezkuntzan irakurmenaren eta idazmenaren ikasketan alerta-sintomak antzemateko adierazleak behatzeko protokoloa (5 urte amaiera)

Ikaslearen izena..... Ikasturtea .....

Jaiotze-data .....Balorazio-data.....

ETAPA	ITEMAK	BAI	EZ
5 URTE AMAIERA	1. Irakurtzeko edo idazteko zailtasunak dituzten familia-aurrekariak ditu		
	2. Hitzak silabaka egoki zatitzeko zailtasunak ditu		
	3. Zailtasunak ditu hitzak sailkatzeko hitzaren hasierako, erdiko edo amaierako soinuen arabera		
	4. Hitz batzuetako soinu berdinak aurkitzeko erraztasun txikia du		
	5.Fonema edo soinuen arabera sortu eta zatitzea kostatzen zaio (Gehienez 4 fonema)		
	6.Berba berri bat sortzeko, hitz bati soinuak gehitu edo kentzeko zailtasunak ditu		
	7. Soinu batzuk txarto ahoskatzen ditu		
	8. Bat-bateko hizkuntzan jario txikia du		
	9.Erabili nahi duen hitza aurkitzeko motela da		
	10. Hurrenkera zainduz, hiru agindu jarraitzea kostatzen zaio		
	11. Espazio-orientazioan zailtasunak ditu		
	12. Trebetasun txikia du azkar izendatzeko: koloreak, pertsona-izenak, irudiak, gauzak...		
	13. Landutako soinuen irakurketan zailtasunak ditu		
	14. Zenbaki hurrenkeraren menperatze eskasa du		
	15. Arkatzari txarto eusten dio		
	16. Trazuaren kontrol eskasa du		
	17. Koordinazio motorraren zailtasunak ditu		
	18. Arreta mantentzea kostatzen zaio		
Oharrak			
<p><b>EMAITZEN INTERPRETAZIOA</b>  <b>Beltzez</b> dauden itemetako baiezkotako erantzunak arrisku handiaren adierazle dira eta esku-hartzea eskatzen dute. Gainerako itemetako baiezkotako erantzunak (beltzez ez daudenenak) sintomak areagotu ditzaketen loturiko zailtasunen adierazle dira eta esku-hartzeko estrategiak planifikatzerakoan kontuan hartu beharko dira.</p>			

## 5 URTEKO HAUR-HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK

### ORIENTABIDE OROKORRAK

- Etapa honetan hizkuntza idatziaren ikasketa hasten da (Lehen Hezkuntzako 2. mailako amaiera arte, hots, 7 urterekin inguru, ikasleek ez dute prozesu hori amaitu; hori dela eta, ezin dugu dislexiari buruz hitz egin). Beraz, Haur Hezkuntzako Etapa honetan esku-hartzeko jarraibideak guztiz badaezpadakoak dira.
- Gomendio hauek gelako ume guztientzat aplikagarriak dira.
- Etapa honetan ikasleek hizkuntza idatzia oinarritzen deneko funtsezko prozesuak egoki ikasten dituztela zaindu egin behar dugu eta ikasteko erritmo ezberdinak errespetatzea oso garrantzitsua da.
- Beraz, 1. mailako esku-hartzea soilik erabiltzea gomendatzen da:  
Gelako programak aberastea da helburua, ikasle guztientzat onuragarria izan dadin eta, batez ere, zailtasunen bat dutenentzat. Kasu horretan, behatu beharko dugu zein prozesutan dituen zailtasun gehien ikasleak (kontzientzia fonologikoa, soinu-grafia elkarrekikotasunean,edo grafomotrizitatearen menperatzea), hori indartze aldera.

ESKU-HARTZEA	JARDUNAK
PERTSONALA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oso argi izan oraindik ezin dugula nahasmendu bati buruz hitz egin. Beraz, umea zein une ebolutibotan dagoen behatzea da egokiena eta, bere erritmoa errespetatuz, aurrera egiten laguntzea.</li> <li>• Gehiegi eskatzeak antsietatea sorrarazi diezaioke umeari eta ikasketa prozesua oztopatu.</li> </ul>
FAMILIA ARTEKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiaren inplikazioa bilatu behar da eta pautak eta jarraibideak erraztu UMEARI eta UMEAREKIN irakur dezaten eta irakurtzera anima dezaten (ikus 7. orria, 3-6 urte bitarteko umeen familientzako gida).</li> <li>Irakurzaletasuna da bizitzaren aurrean izaten dugun eta ikasi egiten den gaitasuna. Gurasoek prozesuan aktiboki parte hartuz gero, seme-alabek errazago garatuko dute irakurtzeko interesa.</li> <li>Kontuan hartu behar da irakurketak plazera behar duela; gurasoen arreta izatea ekintza hori egin bitartean eta elkarrekin irakurriz ondo pasatzea dira umeak ikasketa honengatiko interesa bermatzeko garantiarik onenak.</li> <li>• Garrantzitsua da, alde batetik, ikasketa prozesua partekatua izatea eta, bestetik, eskolatik zein familiatik elkarrekin lan egitea.</li> </ul>
SOZIALA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelan ikasle guztiekin landu behar da aniztasunarekiko begirunea: denok ikasi eta hobetzen dugu, NORK BERE ERRITMOAN!</li> </ul>
ESKOLA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gogorarazi etapa honetan parte hartzen duten irakasleei ikasketa-hastapena dela eta ez finkapena.</li> </ul>

ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK	ZER EGIN?
<b>Oro har, irakaskuntzak izan behar du:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Zentzumen anitzekoa</b> _Zentzumen guztien zehar (entzumena, ikusmena, ukimena...) erraztu irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren arteko integrazio aktibo eta interaktiboa.</li> <li>- <b>Metagarria</b> _Ikasleak oinarritzko ikasketak ulertu eta bereganatu dituela egiaztatu.</li> <li>- <b>Sekuentziala</b> _Ikaskuntzaren pausuak mailaka lortzen dituela ziurtatu, beste konplexuago batzuekin hasi aurretik.</li> </ul>

ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK	ZER EGIN?
<b>Oinarri linguistikoa zabaldu:</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Haur Hezkuntzan ezinbestekoa da trebetasun komunikatibo eta linguistikoei lehentasun handiagoa ematea hizkuntza idatziaren ikaskuntzarekin zuzenean erlacionatutako trebetasunei baino. Ezin dugu ahaztu urte hauetan umeak hizkuntzaren osagaiak bereganatzen ari direla: egitura morfologiko eta sintaktikoak, ezaugarri fonologikoen garapena, lexikoaren hedapena...</li> <li>Hizkuntza idatzia ahozko hizkuntzaren bigarren mailako irudikapena da, eta eskuratzeko tarteko prozesuak (hitz idatziaren dekodifikazio, identifikazio eta ulermena) ahozko hizkuntzaren garapen onean dautza.</li> <li>Oinarrizko hiztegi funtzionala ahozkotasunean ziurtatu, hizkuntza idatzian ezagutu eta erabili ahal izateko.</li> </ul>
<b>Irakurmena eta idazmena irakasteko:</b>	<p><b>Alde funtzional eta kulturalak landu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Sortu eta bideratu ikasketa-testuinguruak umeari eraikitzen laguntzeko idazmenaren zentzua kultura elementu bezala, horrela irakurtzen ikasteko desioa pizteko; hizkuntza idatziaren funtzioak erakutsi.</li> </ul> <p>Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak ere kontuan hartu behar dira. Testuinguru egokia sortu behar da ikasketa esanguratsua izan dadin: errotuluak, izenak, ipuinak irakurtzea ...</p> <p><b>Alde adierazgarriak landu</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Irakurmenarekiko zaletasuna sortzea bezain garrantzitsua da umeari ulertaraztea hizkuntza idatzia komunikazio sistema dela, adierazteko modu bat, jolasa, marrazkiak eta ahozko hizkuntza bezalakoa, hain zuzen ere hizkuntza idatziaren aitzindariak. Horrek suposatzen du ulertaraztea umeari zer den, zer irudikatzen duen eta zer adieraz dezakeen hizkuntza idatziak: errotuluak, oharrak, mezuak, idazteko jarraibideak...</li> </ul> <p><b>Kodea irakatsi</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Kontzientzia fonologikoa edo hitzak sortzen dituzten fonemak (soinuak) ulertu, identifikatu eta manipulatzeko trebetasuna. Entzun-lana da guztiz eta soinu-grafiaren elkarrekotasuna irakatsi aurrekoa.</li> </ul> <p>Ikaskuntza 3Un hasten da (errimak entzuten ikastea...). 4Un jarraitzen du (silabekiko lana) eta 5Un erdialdera amaitzen da (fonemekiko lana edo kontzientzia fonologikoa, hain zuzen ere).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikaskuntza fonetiko edo hizkuntza idatziaren grafiak fonemekin (ahozko hizkuntzaren soinuak) erlacionatzeko trebetasuna. Umeei kode alfabetikoaz jabetzen laguntzea: grafiak ezagutzea (ikus- eta direkzio-pertzepzioa), hitzak eta esaldia deskodifikatu eta kodifikatzea (analisi eta sintesirako trebetasuna).</li> </ul> <p>Ikasketa 5U amaieran hasten da eta LHko 1. mailan garatzen da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ahozkoan oinarrizko hizkuntza funtzionalaren ezagupena, idatzizkoan ikasleak antzeman eta erabili ahal izateko, eta horrela, hasieratik zer irakurtzen duen uler dezan.</li> </ul> <p><b>Grafomotrizitatearen menperatzea erraztu.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ziurtatu umea gai dela pintza egiteko idazteko tresnak hartu baino lehen eta trebetasun hori sustatu oinarrizko gaitasun manipulatioak landuz (3U).</li> <li>Grafomotrizitatea trebatu oinarri guztiak erraztuz: gorputzaren jarrera, ereduak, norabide zuzena ziurtatzeko marjinak eta argitasuna idaztean (4U eta 5U).</li> </ul>